

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak neurriak hartzeko gomendatzen du iragarritako tenperatura altuei aurre egiteko

Gogora ekarri du ere, tenperatura altuak direla-eta, suteak pizteko arrisku "oso handia eta muturrekoa" dagoela

Lunes, 06 de julio de 2015

Nafarroako Gobernuak neurriak hartzeko gomendatzen du gaur, uztailak 6, iragarrita dauden tenperatu altuei aurre egiteko. AEMETen arabera, 36 ° C baino gehiagora hel daiteke. Osasun Departamentuak gogora ekarri duenez, gehiegizko beroak pertsona guztiei eragin diezaike, baina haurrei, adinekoei edo gaixoei, batez ere.



Beroak haurrei, adinekoei edo gaixoei eragin diezaike bereziki.

Zehazki, deshidratazioa, karranpak, nekea edo bero-kolpea eragin dezake, gorputzak 39 ° do gehiago badu, bai eta buruko mina, nahasmendua edo konortea galtzea ere. Kasu horietan, osasun-arreta jaso behar da berehala.

Tenperatura kontrolatzeko ohiko sistemaren gainkargarik ez izateko, Osasun Departamentuak ura eta likido freskoak maiz edateko gomendatzen du, eta fresko egotea, dutxak hartuz, bainatuz edo aireztatze edo klimatizazioko sistemak erabiliz (zinemak, saltokiak, kafetegiak...). Gainera, eguzkitik babestea komeni da, bero gehien egiten duen orduetan kalera ez ateratzea, eta itzala bilatuz. Ariketa fisikoa eguzkipean eta tenperatura altueneko orduetan ez egitea gomendatzen da.

Zaintza horiek adinekoek edo gaixoek bete behar dituzte bereziki (familiarrak, lagunak, auzotarrak...); beraz, Osasun Departamentuak haiekin egunean pare bat aldiz behintzat harremanetan jartzeko gomendatzen du ondo daudela jakiteko, eta neurri horiek aplikatzen ari direla ziurtatzeko. Pertsona baten tenperatura oso altua badu beste arrazoirik gabe edo konortearen egoeran aldaketak baditu, Osasun Departamentuak osasun-zerbitzuetara jotzeko beharra azpimarratu du.

Suteak pizteko arrisku handia

Foru Gobernuak ere arreta handiagok aritzeko eskatu die, batez ere, garai honetan bilketa-lanak egiten dituzten nekazariei, suteak pizteko

muturreko arriskua baitago. Nafarroako Larrialdi Agentziak une hauetan bilketa-lanak egiten ari diren herritarrei eta [nekazari](#)ei eskatu die kontu handiagoa izan dezatela; gogorarazi du, halaber, ekainaren 15ean, indarrean sartu zirela udan nekazaritza eta basoko lurretan sua erabiltzeari buruz [aurreikusitako murrizketak](#), suteak ez pizteko prebentziozko neurri gisa.